



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Lekeitioko Udala

Lekeitioko udal musika eskolan prestakuntza jasotzeagatik prezio publikoak onartzen dituen Ordenantzaren onarpena.

Lekeitioko Udaleko Udalbatza Osoak 2026ko maiatzaren 26an egindako ohiko bilan erabaki zuen Lekeitioko udal musika eskolan prestakuntza jasotzeagatik prezio publikoen ordenantza onartzea.

Prezio publiko horiek, euren onestea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.

Aipatutako prezio publikoen ezarpenerako oniritzia ematen duen erabakiaren aurka interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsua egin dezakete EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiaren aurrean, bi hilabeteko epean (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunetik aurrera).

Lekeition, 2026ko maiatzaren 27an.—Alkatea, Ander Aldazabal Etxeberria

**LEKEITIOKO UDAL MUSIKA ESKOLAN PRESTAKUNTZA JASOTZEAGATIK
PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA****1. artikulua. — Objektua eta zerga-egitatea**

Ordenantza honen xedea da Lekeitioko Udal Musika Eskolak eskaintzen dituen irakaskuntza eta prestakuntza zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzea.

Prezio publikoaren zerga-egitatea da Musika Eskolak antolatutako ikasgai, talde-jarduera eta bestelako prestakuntza jardueretan parte hartzea.

2. artikulua. — Ordaintzera behartuak

Prezio publikoa ordaintzera behartuta egongo dira Musika Eskolako jardueretan plaza eskuratzen duten pertsona fisikoak edo, hala badagokio, haien legezko ordezkariak.

3. artikulua. — Kobrantza

Prezio publikoa ordaintzeko obligazioa sortuko da aurre-inskripzioa behin betiko onesten denean eta plaza esleitzen denean.

4. artikulua. — Zenbatekoa

Prezio publikoen zenbatekoak Ordenantza honen Eranskinean jasotako tarifetan zehaztutakoak izango dira, eta Eranskina Ordenantzaren parte banaezina izango da.

Tarifak ikasgai motaren, iraupenaren, saio kopuruaren eta jarduera modalitatearen arabera bereiztu ahal izango dira.

5. artikulua. — Kudeaketa, likidazioa eta ordainketa

Prezio publiko honen kudeaketa eta likidazioa Lekeitioko Udala-ko Hezkuntza sailari dagokio.

Ordainketa egingo da erabiltzailearen kontu-korrontean karguaren bidez, plaza behin betiko esleitu ondoren, hileroko edo ezarritako epeetan, matrikulatutako ikasgaien arabera.

Ezarritako epeetan ordainketa egiten ez bada, zerbitzua eten ahal izango da, eta, hala badagokio, plaza galtzea ekar dezake.

Ordenantza honetan aurreikusi gabeko gaietan, aplikagarriak izango dira:

- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudia.
- Lekeitioko Udaleko Zerga Ordenantzak.

5.1. Ordainketa

1. Ikasturteko matrikula-tasa eta ikasturteko ikasgaien hileroko kuota guztiak banku-helbideratzearen bidez ordainduko dira.

2. Ordaintzeko betebeharra duenak edo, hala badagokio, haren arduradunak banku-kontu bat eman beharko du, eta Lekeitioko Udalar berariazko baimena emango dio dagozkion zordunketak egiteko, Kudeaketako eta Ikuskapeneko Bilketako Zerga Ordenantza Orokorrean aurreikusitako baldintzetan.

5.1.1. Matrikula-tasa

- Kostua: Eranskinean jartzen dena ikasleko eta ikasturteko.
- Ordainketa irailaren bigarren hamabostaldian gauzatuko da.
- Ikasturtean zehar, eskainitako plaza libreetan izen-ematen dutenek, klaseak jasotzen hasiko diren hilabetean zehar ordainduko dute ikasturteko matrikula-tasa. Kostua berdina izango da.

5.1.2. Ikasgaien-kuotak

- Kostua: ikasgai eta espezialitate bakoitzak prezio ezberdinak izango dituzte. Eranskinean datozen tauletan ikusgai.



- Ordainketa errazteko asmoz, izena emandako ikasgairen kostu osoa 10 hilekotan kobratuko da, urritik uztaillera.
- Ahots eta Tresna taldeen kuota (beste ikasgaietan matrikulatuta ez daudenen kasuan) 3 zatitan kobratuko da: abenduan, martxoan eta ekainean.

5.2. *Matrikulazio epeak eta araudia*

Udal musika eskolan izen-emateak, ikasturte osoko konpromezua onartzea dakar. Matrikulazio epea ekainean zabalduko da. Bi epe zehaztuko dira:

- Barne-matrikulazioa: jada udal musika eskolako ikasleentzat zuzendua, hurrengo ikasturtera begira ikasgairen bat gehitu nahi dutenentzat.
- Kanpo-matrikulazioa: oraindik udal musika eskolako ikasle ez direnentzat, hurrengo ikasturtera begira izena-eman nahi dutenentzat.

Matrikula eskariak epe ofizialen barruan egin behar dira (ekainean). Irailean plaza libreak geratu badira, ez-ohiko epea zabalduko da, soilik libre geratu diren plazak eskainiz.

Abenduko baja-epearen ostean geratzen diren plaza libreak eskaini egingo dira eta onartu eta izena ematen duten ikasleek, urtariletik aurrera hasiko dituzte klaseak izena emandako ikasgaietan/ikasgaietan.

Jada ikasle direnei, baja-epe barruan baja-eskaririk ez badute burutu, automatikoki berriztatuko zaie matrikula hurrengo ikasturterako, dagozkien ikasgai eta mailetan.

5.3. *Baja epeak eta araudia*

Matrikula gauzatzen den momentuan, konpromezua ikasturte osokoa dela onartuko da. Hala ere, gabon oporren aurretik baja emateko aukera ematen da (abenduan zehar). Baja hau abendua amaitzearekin batera erregistratzen da eta azken kuota, abendukoa izango da (urtarrila hasieran pasako dena).

Ikasturtean zehar baja emateko epe aukera bakarra eskainiko da eta epe barruan gauzatu beharko da. Epez kanpo jasotako baja-eskariak ez dira onartuko eta ikasturtea amaitzeko geratzen diren kuota guztiak ordaindu beharko dituzte.

Hala ere, ikasturtean zehar eta dagozkien agiriekin justifikatuta, honako salbuespen kasu hauek onartuko dira:

- Osasun-arrazoiak. Justifikatutako osasun arrazoiekin ikastaroan jarraitzeko ezintasuna adierazten bada. Medikuaren agiria aurkeztu beharko da.
- Bizi-herri aldaketa. Herriz aldatu eta ikastarora etortzeko ezintasuna adierazten bada. Errolda berriaren agiria aurkeztu beharko da.
- Ordaintzeko ezintasuna. Langabezian geratu eta ikastaroa ordaintzeko ezintasuna adierazten bada. Langabezian geratu izanaren agiria aurkeztu beharko da.

Aldi baterako bajak: osasun arrazoiak direla eta epe-motz bateko baja eskatu daiteke (hilabete bat bi edo hirukoa gehienez). Plaza erreserbatuta mantenduko da, hilabete horietako kuota ez da kobratuko eta itzultzeko konpromezua adieraziko da. Aipatutako epea pasata pertsona horrek ezin badu klaseetara itzuli, bere plazari uko egingo dio eta plaza librea eskainiko da.

Udal musika eskolako ikasle aktiboek, hurrengo ikasturtera begira baja eman nahi dutenek baja epe ofizialaren barruan burutu beharko dute (maiatzean astebetez). Epe horretan bajarik ematen ez dutenei, hurrengo ikasturterako automatikoki burutuko zaie matrikula dagozkien maila eta ikasgaietan. Eskaria epez-kanpo burutzen dutenek, hurrengo ikasturteko matrikula tasa eta lehenengo hiruhilabeteko ikasgaien kuota proportzionalak ordaindu beharko dituzte.



5.4. Klaseak galtzearen araudia

Ikasturtean ikasleak klaseak jaso ez baditu honako araudia aplikatuko da:

- Ikasleak, arrazoa dena delakoa izanda, klasera etorri ezin duenean: musika eskolako zuzendaritzan jakinarazi beharko du eta klase horiek ez dira berreskuratuko ezta kuota aldatuko.
- Irakasleak, ezin badu klasea eman:
 - Arrazoa epe-laburreko gaixotasuna edo Langileen Eskubidetan oinarritutako baimen berezia bada, ikasturte osoan behin gertatzen bada, ez du klasea berreskuratzeko derrigortasunik eta kuota ez da aldatuko.
Ikasturtean zehar, ikasleak bigarren aldiz klase-egun berdina galtzen badu (irakaslearen ausentziaren arrazoiz bada), kuota aldatuko edo klasea berreskuratzea proposatuko da.
 - Arrazoa epe-ertain/luzeko gaixotasuna bada, irakasle ordezkoa bilatuko da. Bilaketa hori luzatzen bada, bitarte horretan ikasleak galdutako klaseen proportzioa kuotan aldatuta kenduko da.
 - Irakasleak, musika edo hezkuntza arloko beste lan batekin lotutako kontzertu, entsegu, batzar edo lan-konpromezua badu, ikasleak galdutako klasea/k berreskuratzeko derrigortasuna izango du, ikaslearekin adostutako egun eta orduan.
- Kontzertuak gerturatzeko direnean egiten diren entsegu eta aparteko klaseak ez dira gehituko ikasgaiaren kuotan.

5.5. Kuota itzulketen araudia

Ikasturtean zehar ikasleren baten kuota atzera bota bada (dena delako arrazoa izanda), ikastetxetik jakinarazpena luzatuko zaio.

Jakinarazpen horretan epe bat emango zaio dagokion ordainketa burutu dezan, emandako kontu korrante zenbakira, adierazitako gaia zehaztuta.

6. artikulua.— **Hobariak Lekeitioko Udal Musika Eskola zerbitzuetan**

Lekeitioko Udal Musika Eskola-k eskaintzen dituen zerbitzuetan, honako hobari hauek jasotzeko eskubidea izango dute, matrikula-tasa edo ikasgaien prezio publikoaren gainean:

6.1. *Kultura eta kirol zerbitzuetako hobari orokorrak*

Lekeitioko Udalaren ordenantza fiskaletan Kultura eta Kirol zerbitzuetarako aurreikusitako hobariak aplikatuko dira, betiere bertan ezarritako baldintzak betetzen badira.

6.1.1. Langabezia-egoera

%50eko hobaria aplikatuko zaie matrikulazio egunean langabezian daudela eta lan-eskatzaille gisa inskribatuta daudela egiaztatzen duten 25etik 65 urte bitarteko pertsonen. Hobari hau izena emandako ikasgaien ikasturteko kuotetan aplikatuko da.

6.1.2. Desgaitasuna

%50eko hobaria aplikatuko zaie %33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila aitortua dutela egiaztatzen duten pertsonen. Hobari hau izena emandako ikasgaien ikasturteko kuotetan aplikatuko da.

6.1.3. Adina

%50eko hobaria aplikatuko zaie 65 urtetik gorako pertsonen. Hobari hau izena emandako ikasgaien ikasturteko kuotetan aplikatuko da.

6.1.4. Familia Ugariak

Familia ugariak direnen kasuan, izena emandako ikasgai bakoitzeko 3 euro deskontatuko dira ikasgaien ikasturteko hileroko kuotetan.

**6.1.5. Familia unitateko kide bat baino gehiago musika eskolan**

Familia unitateko kide bat baino gehiago matrikulatuta badaude musika eskolan, matrikula-tasari %25eko deskontua aplikatuko zaio.

6.2. Hobariak aplikatzeko arau orokorrak

- Hobari bat baino gehiago jasotzeko eskubidea dagoenean, interesdunarentzat onuragarriena den hobari bakarra aplikatuko da; hobariak ez dira metagarriak izango.
- Hobari-eskaera izena emateko epearen barruan aurkeztu beharko da, dagokion eskaera-inprimakia eta eskatutako agiriak erantsita.
- Hobaria ez da automatikoki aplikatuko; interesdunak berariaz eskatu beharko du.
- Hobaria eta ordainketa sistema uztartuko dira matrikula kostu eta hileko kuoten likidazioan, kudeaketa argi eta erraz bateratzeko.
- Lekeitioko Udalak, elkarreragingarritasun-plataformen bidez eta dagozkien elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, hobaria edo salbuespena eskatzen duen personaren datuen beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu, non eta ez duen espresuki aurka egiten (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko du).

Arrazoi teknikoengatik elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Lekeitioko Udalak izapideak egiteko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu eta ezin izango da tramitatu dokumentazio guztia aurkeztu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA**Xedapen Indargabetzaile Bakarra**

Ordenantza hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da Musika Eskolako prezioak arautzen dituen aurreko edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENA**Azken Xedapena.— Indarrean jartzea**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitalpenaren biharamunetik aurrera jarriko da indarrean, 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak 49. eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.



ERANSKINA

Ikasgaien ikasturteko kuotak

- Ikasturteko ikasle bakoitzeko matrikula tasa: 26,25 euro.
- Matrikulatutako ikasgai bakoitzaren kuota:

1. maila. — *Kontaktua*

Ikasgaia	Iraupena	Kostu osoa (€)	Hileroko kuota (€)
Musika tailerra 0 (5 urte)	Astean 60 minutuko saio bat	287,50	28,75
Musika tailerra 1 (6 urte)	Astean 60 minutuko saio bat	287,50	28,75
Musika tailerra 2 (7 urte)	Astean 60 minutuko saio bat	287,50	28,75

2. maila. — *Espezialitate hastapena*

Ikasgaia	Iraupena	Kostu osoa (€)	Hileroko kuota (€)
Musika hizkuntza 1,2,3,4 eta 5. maila (LH3-4-5-6 DBH1)	Astean 60 minutuko saio bat	345,00	34,50
Musika tresna (LH3-4-5-6 DBH1) * <i>Musika hizkuntza ikasgaia egitea ezinbestekoa da</i>	Astean 30 minutuko saio bat	490,00	49,00
Musika hizkuntza+ musika tresna %5eko murrizketarekin (LH3-4-5-6 DBH1)		793,00	79,30
Pandero Taldea (LH3-4-5-6 DBH1)	Astean 30 minutuko saio bat	235,00	23,50
Ahots edo Tresna Taldea (LH3-4-5-6 DBH1)	Taldearen ezaugarri eta ikasle ratioaren arabera	75,00	25,00 euro/hiruhileko

Kuota murrizketak:

- Bi musika tresna edo gehiago dutenentzat %10eko deskontua kuota osoan.
- Pandero taldea: musika tresna edo hizkuntzako ikasleentzat %25eko deskontua soilik Pandero ikasgaiko kuotan.
- Ahots edo tresna taldea: musika tresna edo hizkuntzako ikasleentzat doakoa.

3. maila. — *Espezialitate finkapena*

Ikasgaia	Iraupena	Kostu osoa (€)	Hileroko kuota (€)
Sarbide prestaketak Erdi edo goi mailako ikasketak egin nahi dituztenentzat (14-17 urte artean)	Astean 30 minutuko saio bat	490,00	49,00
Harmonia modernoa (14-17 urte artean)	Astean 30 minutuko saio bat	490,00	49,00
Musika tresna (14-17 urte artean)	Astean 30 minutuko saio bat	490,00	49,00



Ikasgaia	Iraupena	Kostu osoa (€)	Hileroko kuota (€)
Pandero Taldea (14-17 urte artean)	Astean 30 minutuko saio bat	235,00	23,50
Ahots edo Tresna Taldea (14-17 urte artean)	Taldearen ezaugarri eta ikasle ratioaren arabera	75,00	25,00 euro/hiruhileko

Kuota murrizketak:

- Sarbide prestaketak eta musika tresna ikasten dutenentzat %10eko deskontua kuota osoan.
- Bi musika tresna edo gehiago dutenentzat %10eko deskontua kuota osoan
- Musika tresna bat edo gehiago eta Harmonia Modernoa edo Sarbide Prestaketak dituztenentzat %10eko deskontua kuota osoan
- Pandero taldea: musika tresna edo hizkuntzako ikasleentzat %25eko deskontua soilik Pandero ikasgaiko kuotan.
- Ahots edo tresna taldea: musika tresna edo hizkuntzako ikasleentzat doakoa.

4. maila. – Espezialitate hobekuntza

Ikasgaia	Iraupena	Kostu osoa (€)	Hileroko kuota (€)
Musika hizkuntza helduentzat (18 urtetik gorakoentzat)	Ikasle ratioaren arabera	345,00	34,50
Harmonia modernoa (18 urtetik gorakoentzat)	Astean 30 minutuko saio bat	490,00	49,00
Musika tresna (18 urtetik gorakoentzat)	Astean 30 minutuko saio bat	490,00	49,00
Musika hizkuntza+ musika tresna %5eko murrizketarekin (18 urtetik gorakoentzat)		793,00	79,30
Pandero Taldea (18 urtetik gorakoentzat)	Astean 30 minutuko saio bat	235,00	23,50
Ahots edo Tresna Taldea (18 urtetik gorakoentzat)	Taldearen ezaugarri eta ikasle ratioaren arabera	75,00	25,00 euro/hiruhileko

Kuota murrizketak:

- Bi musika tresna edo gehiago dutenentzat %10eko deskontua kuota osoan.
- Musika tresna bat edo gehiago eta Harmonia Modernoa edo Sarbide Prestaketak dituztenentzat %10eko deskontua kuota osoan
- Pandero taldea: musika tresna edo hizkuntzako ikasleentzat %25eko deskontua soilik Pandero ikasgaiko kuotan.
- Ahots edo tresna taldea: musika tresna edo hizkuntzako ikasleentzat doakoa.

Tratamendu berezia

Kuotarik gabeko ikasgaia:
– Banda

